



## LANPOSTU HUTSEN PROPOSAMENEI BURUZKO ALEGAZIOAK AURKEZTEA

Irakasleen ordezkariak duten sindikatuek eta edozein irakaslek, bai bere kabuz edo beste batzuekin batera (departamentuak direla, klaustroak, zuzendaritza-taldeak...) egoki iritzitako alegazioak egin ahal izango dituzte idazki egokiaren bidez, eta idazki hori bidali beharko da ikastetxea dagoen lurraldeko **Hezkuntza Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintzaren Lurralde-Buruzagitzara edo Lanbide Heziketako Unitatera. Idazki hori aurkezteko epea 2020ko abenduaren 11an bukatuko da.**

Argi eta garbi utzi nahi da ez dela inolako idazkirik kontuan hartuko Lurralde Ordezkaritzako sarrera-erregistroaren eguna 2020ko abenduaren 11a baino beranduagoa baldin badu, idazki horretan ageri diren egunak beste batzuk izanik ere eta epea kanpo aurkezteko arrazoiak dena delakoak direla ere.

Bizkaia lurraldearen kasuan espezifikoki, Hezkuntza Sailburuordetzak kudeatutako ikastetxeetako (denak, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak kudeatutakoak izan ezik) postuei buruzko alegazioak egin nahi dituzten irakasle eta ikastetxeek formulario on line baten bidez soilik gauzatu beharko dute guztia.

Formulariora iritsi daiteke honako lotura honen bidez:

[https://educacion.hezkuntza.net/group/ikastetxeak/pagina\\_anuncio\\_vacantes](https://educacion.hezkuntza.net/group/ikastetxeak/pagina_anuncio_vacantes)

Formularioan sartu ahal izateko identifikatu beharko da XLnet erabiltzailearekin.

Lotura dela-eta edozein arazo egonez gero, galdetu izeaiozue CAUri: 945 20 72 56. Formularioa betetzeari buruz beste edozein zalantzarako, jarri zaitezte harremanetan Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintzaren atalarekin: [huisb021@euskadi.eus](mailto:huisb021@euskadi.eus) (telefonoa: 94 403 11 00)

Ondorengoak dira lanpostu hutsen proposamenetan ageri diren zutabeak:

**IKASTETXEKO LPZ:** Institutuko lanpostuen zerrendan ageri diren lanpostuak dira, EHAAn argitaratu direnak. Ez dira sartu lanpostu bereziak ezta lan-legepeko langileentzat nahiz Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasleen kidegokoentzat gordeta daudenak ere, lanpostu horiek lekualdatze-lehiaketa honi ez baitagozkio.

**LEHIAKETAKO LANPOSTUAK:** Ikastetxeko lanpostuen zerrendan egoteaz gainera, Ikastetxe eta Plangintzaren eta Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzaren iritziz lekualdatze-lehiaketako lanpostuen artean agertu ahal izateko bete behar diren irizpideak betetzen dituztenak dira.

**ATXIKITAKO IRAKASLEAK:** Behin-betiko destinoa ikastetxean duten irakasleak dira eta ikastetxe horretako lanpostu bati daude atxikita, nahiz eta praktikan ikastetxean bertan egon eskolak ematen edo, beharbada, beste tokiren batean.

**LEKUZ ALDARAZITAKO IRAKASLEAK:** Lekuz aldaraziaren izaera duten irakasleak dira, baina lanpostu bat betetzeko eskubidea dute, aukera hori sortzen den unean.



**GORDETAKO LANPOSTUAK:** Aurreko bi zutabeetako egoerak batzearen ondorioa da. Atxikitako irakasleak eta lekuz aldarazitakoak batuz gero, lanpostua guztira zenbat irakasleri gorde beharko zaien jakingo dugu.

**LEKUALDATZE LEHIAKETAKO LANPOSTU HUTSAK:** lehiaketako lanpostuei gordetako lanpostuak kendu eta geratzen direnak dira. Kenketaren emaitza positiboa baldin bada, lekualdatze-lehiaketan eskainiko diren lanpostu hutsak aterako zaizkigu.

**ESTALITAKO BIGARREN ALDIKOAK:** “lehiaketako lanpostuak” zutabeari “gordetako lanpostuak” zutabekoak kendu eta geratzen direnak dira. Kenketaren emaitza negatiboa baldin bada, konkurtsoan estali beharreko lanpostuak zeintzuk diren jakingo dugu, hau da, lanpostu horiek, nahiz eta ikastetxeko irakasle bat lekuz aldatu, ez dira lanpostu huts bezala eskainiko, espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako beste irakasle batentzat gorde beharko baitira, atxikitakoa edo lekuz aldarazitakoa.